

TEORIA SOZIOLOGIKOA I

SARA BIDARTE BEGIRISTAIN

2018-2019 ikasturtea

LEHENENGO ZATIA: TEORIA SOZIOLOGIKOAREN OINARRIA

1. gaia:

TEORIA SOZIOLOGIKO MODERNOAREN JATORRIA

SARRERA

Gizakiak betidanik bere buruarengan eta ondokoengan pentsatu izan du, bere izaeraren baitakoa du hori. Era berean, ona, txarra eta desiragarriaren inguruko gogoetak egin ditu gizateriaren hastapenetatik. Horrela, bada, errealitate hori guztia azaltzeko, historian zehar, hainbat bide baliatu dira:

- Erljioa: 'Si Dios quiere'; dena den, sekularizazio prozesu bat eman da modernizazio prozesuarekin batera
- Tradizioa: tradizioa ere botere eta legitimazio iturri bat izan da, 'beti hala izan delako'.
- Ideologia: ideologiek ere errealitatea aztertzeko gerturapen bat egiten dute, baina ez era zientifiko batean

Esan bezala, beraz, historian zehar tradizio, erlijio edota ideologiaren ikuspuntutik egin dira gehienetan gogoeta horiek. Dena den, munduaren inguruko iritzi eta baieztapen hauek arrazoiaren bidetik planteatu daitezke, ikuspuntu arrazional batetik alegia.

Horrela, soziologiak, errealitatea arrazoiaren eta metodo zientifikoaren bidez azaltzen du. 'Teoria Soziologikoa' errealitatearen azalpen bat

Teoria soziologikoaren ezaugarriak:

Teoria bat, edozein arlotan, behaketa enpirikoak azaltzen eta forma ematen saiatzean datza. Beraz, teoria sozial arrazionalaren helburua errealitate soziala ikuspegi arrazional, sekular eta kritiko batetik aztertzea da. Honakoa izango da, hain zuzen ere, gure abiapuntua: ilustrazioarekin batera XVIII. mendean abiatu zela.

Teoria soziologiko ezberdinen garapena ez da lineala edo automatikoa izan, eta gatazka ezberdinak eman dira beren artean.

Ekarpen hauetatik abiatuta, teoria soziologikoaren oinarria, hau da, edozein teoria sozialek honako zati edo ezaugarriei erantzun behar die: *(lazko azterketan sartu zen)*

1. Gizartearen antolaketan sakontzen du: botere, estartifikazio eta egitura ezberdinak aintzat hartzen ditu.
2. Gizakiaren izaera zein den: ontasuna (Rosseau), gizakiak plazera bilatzen du (Bobbes, Mquiavelo, Aristoteles)
3. Ideien eta materialtasunaren arteko harremana nola ematen den. Bi diskurtso ezberdin: materialista eta idealista.
4. Sozioogia zientzia bezala definitzen du: helburu eta bitarteko egokienak zein diren zehaztuta.
5. Soziologoak gizartean jokatzen duen paperaren definizio bat eskaintzea; hots, soziologoak zein funtzio betetzen duen gizartean.
 - o Arazo sozialen inguruko ikerketa bat egitea, eta ikertutako horren inguruko emaitzak plazaratzea.

SOZIOLOGIAREN AURREKARI HISTORIKOAK:

Esan bezala, Soziologia ikuspegi eta 'arrazoia' kontzeptuaren garapenean zentratzen da; horrela, teoria sozial modernoa ilustrazioarekin batera indartu zen.

Dena den, ezin esan genezake ilustraziora arte tradizioa, erlijioa eta ideologiak beti nagusi izan direnik. Izan ere, errealitate soziala ikuspuntu arrazional batetik aztertzearen lana aurretik egin da, eta aurrekari edo aitzindari ezberdinak daude:

- GREZIAR FILOSOFO KLASIKOAK:

Greziarrek filosofia eta zientzia asmatu zuten, arrazioaren bidez soilik errealitatea eta mundua ezagutzeko tresnak alegia. Lehen aldiz Gizarte Zientzietan irizpideen barruan koka ditzakegu azterketak egin ziren. Horrela, historiaren kasuan adibidez, kondaira, mitoa, edo superstizioa alde batera uzten dira (Herodoto eta Tucídides). Filosofia arloan ere, Platon eta Aristoteles filosofo klasikoak ditugu aipagarrien gizarteari buruzko lehenengo gogoetetan. Era horretan, gizarte ereduaren ezaugarrietan sakondu egingo dute, hala nola, berdintasuna, askatasuna,...

- ERDI AROA:

Maiz, historian, Erdi Aroan zientzilarientza aro ilun gisa jotzen da, ordea, Europatik at (hala nola mundu musulmanen) aurrekuntza handiak eman ziren.

- BERPIKKUNDEA (XVII. m):

Grezia garaiko hastapenetatik (Europa Mendebalean bereden), teoria soziologikoak ez du bultzada nabarmenik izango Errenazimendu edo Berpizkundea heldu artea. Honekin, berriro ere, arrazoia indartuko da.

Hemen, dagoeneko, Soziologiaren eragina izango duten korranteak izango ditu: alde batetik, Platonen jarraitzaile idealistak, printzipio abstraktuetan oinarritutako gizarte ereduaren defentsan ariko direnak (Tomas Moro eta bere *Utopia* dira adibide). Bestalde, materialismoan eta ikuspuntu errealistagoan oinarritutako direnak ere izango dira (Maquiavello eta bere *Printzipea*).

Horien arteko hirugarren bidean Juan Luis Vives koka genezake, gizartearen injustiziak eta horiei aurre hartu beharreko neurrien inguruan gogoeta egiten duena (*Socorro de los Pobres*).

Horrela, hiru ikuspuntu hauek izan dira, hain zuzen ere, Mendebaldeko Europako teoria soziologikoaren ardatz eta abiapuntuak; edozein pentsamendu soziologiko planteatzeko beharrezko direnak:

- Teoria: abstraktua den filosofia morala
- Enpiria: gure portaeren azterketa hotza errealista
- Arau oralak, etika: gure eta gure inguruko baldintzak hobetzeko ahaleginak.

- ILUSTRAZIOA:

Esan bezala, honekin batera sortu zen Soziologia zientzia gisa.

SOZIOLOGIAREN SORRERAKO FAKTOREAK:

Soziologiaren sorrera hobeto ulertu ahal izateko faktore ezberdinak kontuan hartu behar dira; hauen eragina XVIII. zein XIX. mendeetan nabaria izango delarik. Are gehiago, testuinguru zehatz bat eta

ondoren aipatuko diren faktoreak eman ez balira oso zaila izango zen soziologia zientzia bezala sortu ahal izatea:

1. Industria Iraultza eta Kapitalismoaren sorrera:

Industria Iraultzak aldaketak ekarriko ditu gizartean., eta kapitalismo modernaren sorrera ahalbidetuko du. Mugimendu jendetsuak ematen dira nekazal erremuetatik hirietara, industrian sortzen diren lanpostuak betetzeko (aldaketa demografiko garrantzitsua). Industria eta ekonomiaren garapenarekin batera, kapitalismoa ahalbidetzeko burokrasia modernoa ere sortuko da. Sistema kapitalista klasikoan gutxi bazuk izugarritzko mozkinak lortzen zituzten eta gehiengo langileak oso soldata txikiak jaso ditu. Horren ondorioz, sistema kapitalistaren aurrean erantzun politiko ezberdinak sortuko dira: Langile mugimendua, sindikatuak, sozialismoa, anarkismoa, etab.

2. Urbanizazio prozesua:

Aurreko faktoreari lotuta, nekazal eremuetatik hirietarako prozesuek lehenengo soziologoek interesa piztu zuten (hiria bilakatu zen guztion funtzionamendu eremu, nekazal guneak baztertuz), nagusiki hiriaren garapenari loturiko arazoak: masifikazioa, kutsadura, zarata, etxebizitza... Horrela, egungo soziologian garrantzia handia du hiriraren azterketak.

3. Iraultza politikoak:

Garai honetan hainbat iraultza politiko gertatuko dira, zeinak hainbat ideia berri planteatzeko garrantzitsuak izango diren.

Batetik, Frantziako Iraultza (liberala) (XVIII. mendea, 1789) → Honek ilustrazioa eta ideia berriak ekarriko dizkigu.

Bestalde, AEBko independentzia (XVIII. mendea, 1776) → garai honetan, AEB izango da Estatu garatuena duen herrialdeetako bat. AEBren botere banaketa Espainiarena baina garanteagoa eta sendoagoa da.

4. Aldaketa erlijiosoa:

Erljioa eta gizartearen artean ematen diren aldaketa. Sekularizazio prozesua martxan jarri zen Europan, eta gaur egun arte etengabeko prozesua zan da honakoa (AEBn ez). Elizek botere politikoa galtzeaz gain, botere soziala ere galdu dute.

Horrela, aurretik aipatutako aldaketok erlijioan izandako eragina ere soziologo klasikoek aztergai izango da (bereziki, XIX. mendean)

5. Feminismoaren sorrera:

Feminismoak eta emakumeen aldarrikapenak betidanik existitu diren arren, indarra hartzen dute XVIII. mende bukaeran Estatu Batuetako eta Frantziar iraultzaren eskutik emandako eztabaidetan. Aipatu beharra dago hasierako soziologoek artean emakumeak alboratuta egongo direla, hau da, mespretxatu egingo dituzte, eta eurek egiten dutena bigarren plano batean utziko dute. Gehienetan gainera, soziologo (gizonezkoak) klasikoek feminismoaren kontrako ikuspuntu kontserbadorea azalduko dute (Weber, Durkheim).

Ilustrazioan indar mugatu bat hartzen du feminismoak (kontuz historia gaur egungo ikuspuntutik ulertu nahi izatearekin, gauza bakoitza kokatu egin behar da bere ikuspuntuan 'falacia del presentismo') Hori dela era, XVII-XVIII. mendeetako feminismoa ezin dugu gaur egungo feminismoa bezala ulertu: eskubideen eskuratzea soilik mugatzen baitzen.

6. Zientziaren nagusitasuna:

Gai honek erabateko garrantzia izango du. Era honetan eta zientziatik abiatuta, gizakia eta gizartea modu arrazionalan ezagutzeko grina piztuko da.

7. Ilustrazioa (XVIII. mendea)

Aipatutako oro ezin liteke ongi ulertu balore edo ideologiei dagokienean ilustrazioa aintzat hartzen ez badugu. Izan ere, honekin (arlotan filosofikoan), arrazoia eta zientzia bilakatuko dira gizakiak bere testuingurua ulertzeko eta kontrolatzeko izango dituen ardatz nagusiak. Horrela, baztertu egingo dira arestian aipatutako autoritate tradizional edota erlijiosoak, irrazionalak direlako.

Era berean, aurrerabidearen (progreso) ideia ere ardatz izango du Ilustrazioak. Ideia hau ontasunarekin erlazionatzen zen; hots, ilustrazioak sinesten du historiak aurrera egin ahala beti hobera egingo duela. Ordea, aipagarria da Soziologia eta aurrerabidea ez doazela beti batera (ikuspegi posmodernoak); dena den, Soziologiaren sorreran garrantzia berezia izan zuen honakoak. Zehazki, aurrerabidearen kontzeptuak hobera goazenaren ideia du oinarri, bai maila moralteorikoan baita material-enpirikoan ere.

Dena den, aurrerabidearen alde dauden artean ere ezberdintasunak badira: batzuek bide honen ziurtasuna planteatzen duten bitartean, bestetuek bide honen egokitasuna eta landu beharra planteatzen dute, nahitaez emango den errealitatea baieztatu gabe.

Ilustrazioaren filosofo nagusien artean honakoak aipa genitzake:

- Montesquieu: soziologia politikoaren sortzailea, botere banaketa eta berdintasunaren inguruan gogoetak
- Rousseau: gizarte hitzarmena
- Kant

Horiek, gerora, eragin nabarmena izango dute liberalismoa eta sozialismoan (Tocqueville eta Marxengan, alegia)

2. gaia:

TEORIA SOZIOLOGIKOAREN LEHENENGO PARADIGMA TEORIKOAK

Teoria soziologiko klasikoa testuingurutzeko eta hobeto ulertzeko faktoreak landu ostean, bigarren gai honetan Soziologiaren lehenengo paradigmak aztertuko ditugu, horretarako positibismoa - Saint Simon eta Comte - , soziologia eta demokraziaren - Tocqueville - eta Marxen ekarpenak landuko ditugu. Klasikoekin sartu baino lehen, garrantzitsua da hauen aurrekariak aztertzea, klasiko hauen pentsamendua hobeto ulertzeko baina baita ere gaur egun dauden hainbat eztabaiden jatorria ulertu ahal izateko, hain zuzen ere.

POSITIBISMOA: SAINT SIMON ETA COMTE

Ilustrazioan ikusi dugun bezala aurrerabidearen inguruko sinesmenak soziologiaren sorreran garrantzia izango du, eta, honekin batera, Positibismoak ere izango du eragin nabarmena.

Positibismoak zientzia hutsari eta objektibotasunari ematen dio garrantzia, hala zientziaren bidez benetako ezagutza lortu daitekeela ustez. Gainontzeko ezagutzek ez dute ziurtasun hori bermatzen eta horrenbestez ez dira gai edozein giza zein naturarekin lotura duen errealitatea aztertzeko.

Natur Zientzien laudorio eta zehaztasuna munduko beste espazio esparru guztietara zabaldu nahi dute; hots, Natur Zientzien logika Gizarte Zientzietan aplikatzea dute helburu. San Simonek Gizarte Zientzietan Fisika Sozial deitzen die. Beraz, soziologoak metodo induktiboa aurrera eramaten saiatuko dira. Alegia, puntu zehatz batzuk aztertuta ondorio orokorrak plazaratuko dituzte.

Metodo kuantitatibo eta kualitatiboak izanik, positibistek lehen hauei eman zieten garrantzia, bereziki estatistikari hauen gorentasuna azpimarratuko delarik. Pentsa daitekeenez positibismoak muga ahulezi nabarmenak izan arren, soziologia sortzeko lehenengo urratsetan kokatzen da, baliagarria izan zen bere gainean beste ikuspuntu soziologikoen gogoeta eta hausnarketa egin zezaten.

Gaur egun, positibistek badute nolabaiteko gutxiago izatearen konplexua (*complejo de inferioridad*).

SAINT SIMON (1760-1825)

Sozialismo utopikoaren korrontearen aitzindarietako bat da. (Marxek gogor kritikatu zuen ikuspegi idealista izateagatik)

Honek, lehen aldiz, Soziologiari izan jarri zion: Gizarte Fisika (Física Social). Honekin argi geratzen da ikuspegi oso positibista zuela, gizartearen Natur Zientzien bidetik ikertu nahi izan baitzuen:

- Zientzian, arrazoian, eta teknikan fede mugagabea: politika, ekonomia eta erlijioaren gainetik zientzia egon behar denaren ustea

Era berean, Saint Simon izan zen gizarte industrialari buruzko lehen ekarpenak egin zituen soziologoa.

Saint Simonek AEBko iraultzan parte hartu zuen, frantses tropekin, bera frantsesa baitzen. Hortaz, AEBko independentzia eta iraultzaren azterketa egingo du, eta iraultzaren ondorioz kaosa eta ordena falta nabarmendu zen. Horrela, AEBtako iraultza aztertu ostean, eta bertako kaosa politikoa bideratu nahian, honako planteamendua egingo du:

- *Genevako biztanle baten eskutitzak (Cartas a un habitante de Ginebra)* lanean bere ikuspuntu politikoa zabaldu zuen: boterean jakintsuenak jartzea defendatzen zuen. Iraultzek sortutako anabasarri aurre egiteko, zientifikoek gobernua sortu behar da; izan ere, politikari okerrak

egoteari egotzen zion anabasa horren ardura, zientzia eta arrazoia aintzat hartzen ez zutela leporatuta. Horrela, zientzialarien gobernua edo gobernu tekniko bat proposatzen du gobernu hoberen gisa; *“Newtonen Batzordea”* deitu zuena. Dena den, bere proposamenek ez zuten arrakastarik izan, eta garai haietako zientzialariek muzin egin zieten haren ideiei. Testuinguru horretan, zientzia naturalei lotutako gaiak baztertu eta gizarte azterketari eutsi zion.

‘Iraultzek kaosa sortzen dute politikari desegokiak daudelako, ez dutelako zientzia kontuan hartzen, beraz, gobernua zientifikoaz osatuta egon beharko litzateke. Hala soilik lortuko da ongizate maila altuena eta gobernu efikazena’.

- 1823an *Industrialen Katezismoa* lana argitaratu eta gizarte industrialaren ezinbesteko garaena defendatu zuen bertan, eraginkortasuna, produktibitatea eta kapitalaren inbertsioaren nagusitasuna azpimarratuz. Lehen esan bezala, Saint Simonen aburuz sistema industrial horretan zientifiko eta teknikoen papera funtsezkoa izango da. Horrela, bada, **teknokraziaren** inguruko gogoeta egiten du lehen aldiz: hots, adituen autoritatearen inguruko gogoeta, balizko apolitikotasun baten baitan; apaiz, noble zein erregeen aurrean boterea zientifikoek izan behar dutela defendatuz.
 - o Ciudadanos, Frankismoaren bigarren zatia, Italiako krisi garaia, Casado eta Sorayaren arteko eztabaida eta beste hainbat gertaera Teknokraziaren harira koka genitzake.
 - o Tekniko horiek apolitikoak dira, ideologiarik ez dutenak (ideologia arriskutsua dela deritzo Saint Simonek).
 - o Dena den, Teknokrazia bera ere ez da apolitikoa: maiz saldu naiz izan digute errealitate neutral baten gisan, baina bere atzean ideologia bat badago. Orokorrean, Status Quoaren aldekoa. Dena den, esan genezake Saint Simonen ikuspuntuaren atzean inozotasun puntu bat ere bazegoela
- Esan bezala, bada, Saint Simonen esanetan adituak izan behar dira gizartea zuzentzen dutenak. Horrela, aditu horien artean klase orotako pertsonak egotearen garrantzia azpimarratu zuen: adituak ez dira soilik aberatsak izan behar. Horrela, **aukera berdintasunari** eta **meritokraziari** buruz ere mintzatu zen Saint Simon, nolabait pertsona orok aukera izan dezan aditu izateko eta gobernura heltzeko aukera. (≠Berdintasuna).
 - o Honen ondorioz esan genezake Saint Simon ez dela korrante kapitalistetan kokatzen; hots, gehixeago hurbiltzen da sozialismora (lehen esan bezala, Sozialismo Utopikora).
 - o Aukera berdintasunaren eta meritokraziaren diskurtsoa, gaur egun ere, nahikoa ezaguna da; beste kutsu batekin bada ere. Macron, Tony Blair ... Ordea, aukera berdintasunak berdintasuna al dakar?
- Zentzu honetan, bere pentsamenduaren azken garaietan garrantzia handia eman zion **anaitasunari** (fraternidad); eta nolabaiteko erlijio zibil baten alde kokatu zen, Rousseauen ideiak bereganatuta. Honakoa, nolabait esatearren, elkartasun gisa ulertzen zuen. Izan ere, anaitasuna zen, haren esanetan, gizarteari forma ematen ziona (zementua, kohesioa), eta erlijio zibil bat bezala ulertzen zuen. Historian zehar, nazio identitateak pisu handia izan du honakoa sortzerakoan.

Laburbilduz, esan genezake Saint Simonen planteamenduan gizartearen aurrerabiderako zientziaren garrantziak eta anaitasunean oinarritutako morala direla ezaugarri garrantzitsuenak. Testuinguru horretan, bada, gizartearen zientzia baten sorrera ikusten du, gizateria arautu duten legeak aztertu eta etorkizunean emango direnak aurreikusteko tresna gisa identifikatuko duena.

COMTE (1798-1857)

Comte izango da Soziologia kontzeptu bezala asmatuko duen lehena.

Hau ere korrante positibistan sartzen da, baina gehien bat teoria mailan kokatuko da, eta bere lana enpirikoan zentratuko da. Bere teoria soziologikoaren helburu nagusia mundua eta errealitatea azaltzeko lege orokorrak eskaintzea izango da, alegia, Comteren lege orokorren eta gizarte egitura orokorren artean lotura egin genezake.

Comte izango da metodo soziologikoa zehazten saiatuko den lehen soziologoa. Hortaz, berak dio edozein zientzia egiteko nola eta zer ikertu jakin beharra dugula.

Horretarako, hiru bide ezberdin bereiziko ditu, zeinetan, Comtek oinarritzko metodo soziologiko aurre ikusten dituen, hauen bidez gizarte-munduaren ezagutza lortu ahal izateko:

- Behaketa: Comteren arabera behaketa teoria batetik abiatu behar da, eta hauen bidez lege orokorrak sortu. Honen bidez gehienetan jendeari ez eragiten saiatuko gara. Hauek behatu egingo dute kalean gertatzen den hori.
- Esperimentazioa: asko erabiltzen ez den arren, beste zientzietarako aproposagoa da, baina soziologiarako ere erabilgarria izan daitekeena. Ikerketa merkatuetan erabiltzen den metodo bat da.
- Konparaketa: Comteren ustez konparaketa gizaki eta animalien artean egin daiteke; leku ezberdinetan bizi diren gizakien artean eta momentu ezberdinetan bizi diren gizakien artean. Azken honi garrantzia handia ematen zion, eta bere ustez soziologiaren metodorik garrantzitsuena zen.

Adibidez, EAEko eta Italiako pobrezia motak aztertzeko konparatu egingo genuke.

Honen ekarpenik nagusiena gizarte estatistika eta gizarte dinamikaren artean egite duen berezketa da. Gaur egun, honao teminoak baliatzen ez ditugun arren, gizarte egitura eta gizarte aldaketaren parekatu ditzakegu:

- Gizarte estatistika:

Mundua eta gizartea arautzen duten lege orokorren azterketa da. Gizarte egitura ezberdinei buruzko gogoeta egin, hauen funtzionamendua aztertu eta sistema osoaren baitan nola kokatzen diren aztertu zuen, beti ere, ikuspuntu teoriko eta ideal batetik abiatuz eta ez enpirikotasunari garrantzia emanaz.

- Gizarte dinamika:

Estatistikari baina arreta gehiago jarri zion dinamikari. Gizarte gertaeren segida emateko lege orokorrak zeintzuk diren aztertuko du. Bere ustez, eboluzio eta aldaketa prozesu baten ondorioz gero eta hobe den gizarte bat sortuko da. Aldaketa hauek lege orokorren rabera ematen direnez norbanakoak eragin gutxi dauka prozesu hauetan.

Comteren ustez, industrializazioan nolabaiteko sinismen bat duen aldetik, planteatzen du industrializazioaren bidez alde batera utziko direla berekoitasunak, eta honek ekonomiaren birbanaketa ekarriko du. Honetarako ekonomian tradizionalak diren ikuspegi berekoien aurrean altruismoaren alde egiten du. Gizarte egiturek norbanakoaren berezko berekoitasuna kontatu behar dute, altruismoa bultzatu.

Hots, haren esanetan industrializazioaren bidez berekoitasuna baztertu eta elkarbitza eta elkartasuna sustatuko dira; gizarte altruista lortuko delarik. Izan ere, industrializazioaren lanaren banaketak eragingo du honakoa.

Altruismoa: jendearen ongizatea sustatzea era desinteresatu batean.

Laburbilduz, honako puntu hauek azpimarratu ditzakegu Comteri buruz: Soziologia terminoa erabiltzen lehena izan zen eta, era berean, metodo soziologikoak zehaztu zituen. Dena den, bere lana oso soziologikoa ez zen izan eta garai ezberdinei buruz bere baieztapenak ahulezia asko azaldu zituzten. Gaur egun bere ekarpen gehienak gaindituta daude.

SOZIOLOGIA ETA DEMOKRAZIA: ALEXIS DE TOQUEVILLE (1805-1859)

TOQUEVILLE ETA LIBERALISMOA

Zientzia politikoaren sortzaile gisa kokatzen denez askotan soziologian bigarren maila batean kokatua izan da. Dena den. Azken boladan honakoa aldatzen ari da, eta Toquevilleren lana teoria soziologikotzat hartzen hasi dira hainbat (izatez teoria orokor bat ez duen arren, Comteren kasuan bezala). Zentzu honetan, 'Demokrazia Amerikan' (1835) izeneko liburua litzateke bere obra ezagunenetakoa bat: bertan demokraziaren ahulgune eta indarguneak aztertuko ditu, eta AEBko errrealitatea AEBn gertatzen ari dena gainerako lurraldeetan gertatuko dela esaten du. Bereziki demokraziaren arriskuak aztertuko ditu, eta honek kontserbadore gisa identifikatzen du. Liburu honetan AEBko sistemaren eraikuntza nola gauzatzen ari den azalduko du. Momentu honetan AEB izango da lurralderik demokratena. Euren sorreran hiritar guztiek bozka dezakete esklabo eta indigenak alde batera utzita.

Askatasunaren eta berdintasunaren inguruan gogoeta egin zuen (demokraziaren ezaugarriak, oinarria). Planteatu zuen bi kontzeptu hauek batera joan behar zirela, baina **erabateko berdintasun batek askatasuna arriskuan jar dezakeela**. 'ezin da berdintasuna berarekin tratatu klasera egunero datorrena edo noizbehinka datorrena'

Toquevillek dio soldata berdintasuna ezarriko balitz langileak motibazioa, imajinazioa, produktibitatea etab. Galduko lituzkeela, langileen arteko kompetentzia edo lan hobe bat bilatzeko gogoia ea formatu nahia galduko litzatekeelako.

Estatuak oso handiak diren lekuetan norbanakoen askatasunak gero eta mugatuagoak izango dira, nolabaiteko berdintasunak mugak jartzen dizkie banakoen askatasunei/askatasun indibidualei.

Bere azterketan **aldaketa soziala** aztertzeak ere pisu handia izan zuen. Bere kezka iraultzen ondorioz kaosa sortzen dela da, eta kaos horren ondoren egoera ez dela gehiegi aldatzen. Botere aldaketa ikaragarria eman ordez, iraultza batzuen ondoren kaosa ekartzen dutela azaltzen duelako (bera aristokrata zela kontuan hartu behar da). Normalean, ikuspegi kontserbadore liberal batekin bat egiten du, eta ideia sozialisten aurka egingo du, baina hala ere, demokraziak izan ditzakeen hutsumenak edo ahuleziak azpimarratzen ditu.

Toquevillek arreta berezia jarriko du gizarte zibilean, administrazioaren boterearen kontra egin dezakeen talde indartsua baita. Masak boterea zalantzan jartzeko ahalmena du.


MARX (1818-1183)

Marxen soziologiak eta pentsamendu politikoak markatu dute XIX. eta XX. mendea (baita XXI. mendea ere). Hots, komunismoak/sozialismoak markatu egin dute. Marxen **'Manifestu Komunista'** oso garrantzitsua da hainbat puntu ulertzerako garaian. Hots, bere praxia politikora hurbilpen bat egiteko.

Nagusiki Marxen soziologian (gizartearen azterketan) zentratu beharra dugu. Marxismoak adar pila bat izan ditu, korrante asko topa daitezke marxismoan.

DIALEKTIKA:

Kontraesana, gatazka. Marxek dio historiak aurrera egiten duela dialektikaren arabera. Hegelek honakoa planteatzen ideien arloan, eta Marxek gauza bera planteatuko du, baina materialian. Hegelek **materialismo idealista** landu zuen bitartean, Marxek **materialismo dialektikoa** landu zuen. Dialektikoentzat gatazka da historiaren motorra, gizartearen egoera arruntena.



Marxek dio harreman guztietan dagoela kontraesana, botere harremanak leku guztietan daude. Ondorioa da klase gatazka muturreraino joango dela, eta orduan iraultza sortuko da, hau da, iraultzara eta sozialismora garamatza. Klase borrokaren amaiera gizarte komunista litzateke.

Marxismoak eta erlijioak loturak dituzte: marxismoak lurrian paradisu eskaintzen du, eta elizak, berriz, zeruan paradisu bat eskaintzen du.

Marxismoa ilustrazioaren semea da. Marxen akatsetako bat litzateke pentsatzea komunismora automatikoki iritsiko ginela.

Gaur egungo sistema ez da sistema kapitalista purua (bada sistema kapitalista baina ez purua, hau da, ez ditu liberalismoak ezarritako neurriak betetzen), Estatuko administrazio Publikoaren eskuartzea BPGean %35 dagoelako (liberalismoak dio es duela parte hartu behar, hau da, %0ko aportazioa egin beharko luke, ez litzateke egon beharko), eta honek Ongizate Estatu egiten du gurea, nahiz eta krisia dela eta zenbait printzipio erori. batean bizi gara

MATERIALISMO HISTORIKOA:

Edozein gizarte aztertzeko bi dimentsio edo arlo azpiegitura (oinarria) ekonomikoa eta gainegitura lirateke. Ekoizpen modu ezberdinak egon dira historian eta bi arlo bereizten ditu:

- **Azpiegituraren** dimentsioa: arlo ekonomikoa da.
- **Gainegituraren** dimentsioa: Erlijioa, ideologiak, esturaturak, estatua... giza harremanek baldintzatu eta osatzen dute superesturaturak. Ideologiak sistema ekonomikoaren mende egongo dira. Ideologiak oinarriaren mende egongo dira, eta oinarri hau legitimatzen saiatuko dira.

Bi hauen arteko harremana bata bestea definitzen duela da, Marxentzat harreman ekonomikoek gainegitura baldintzatzen dute. Gainera, Estatuak eta ideologiak harreman ekonomikoaren mende egongo dira. Beraz, oinarriak eta gainegitura bata bestearen artean baldintzatuta daude.

Ekoizpen modu ezberdinak izan dira Marxen ustez historian zehar. Ekoizpen modu bakoitzean oinarri bat, ideologia bat eta Estatu mota bat izango dugu.

- Komunismo primitiboa: harreman ekonomikoak eta merkatua oraindik garatu gabe daudenean ematen den komunismoa, Gizarte Asiatikoa Marxek planteatzen duen beste ekoizpen modu bat da, feudalismotik bereizten duena. Adibidez, komunismo primitiboa aurki dezakegu Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan.
- Esklabismoa/joputasuna: hiritarrak eta esklaboak bereizita zeuden gizartean. Hauen oinarria esklabuen lanaz bete-betean aprobetxatzea litzateke.
- Feudalismoa: garai feudaletan estatu burokratiko bat izango da, eta honek kapitalismoa bultzatuko du. Feudalismoa muturrera iritsitakoan kapitalismora pasako gara.
- Kapitalismoa: langileria eta burgesia dira oinarria. Kapitalismoa beti dago krisian, eta ziklikoa da. Hau ematean ekoizpen modu berria izango dugu (sozialismoa). Gatazka krisia izang da, eta sozluizoa gizarte komunista

Historiaren bukaera ekoizpen moduen amaierarekin emango da. Materialismo historikoaren baitan, gizarte komunista idealena izango da, gizarte komunista horretan denak berdinak izango gara eta denok, gure beharrian eta ahalmenen arabera lan egin ahal izango dugu (planteamendua: un paraiso en la tierra)

GIZAKIAREN IZAERA ETA GIZA-NATURA: LANA ETA ALIENAZIOA

LANA:

Bere testuingurua eta gizakiaren arteko harremana. '*Gizakiaren esentzia lana da*'. Lanak egiten gaitu gizaki, naturala eraldatzen dugulako. Giza naturan dagoena eta gizaki egiten gaituena da lana. Kapitalismoan kontraesana ematen da.

Lanaren sakralizazioa, hau da, gizakia sortzen den momentutik lanaren eta gizakiaren arteko harremana azaltzen da. Hau langile mugimenduan eman den fenomeno bat litzateke.

Kapitalismoan ematen den lana ez da berezko lana, baizik eta lan alienatua.

1. Lanaren bidez Marxen ustez objektibazioa lortzen da, pentsamendua material bihurtuko da, hau da, gure helburuak lanaren bidez lortuko ditugu.
2. Bigarren ezaugarria; gure beharrianak asetzeko lana erabiltzen dugu.
3. Lanaren bidez natura eraldatzen dugu, baina naturak ere gu eraldatzen gaitu. Beraz, lanak gu eraldatuko gaitu.

Kapitalismoan egiten dugu lanak ez gaitu betetzen; beraz, alienatu egiten gara, eta lana ez da helburua izango bitartekoa baizik.

ALIENAZIOA: kapitalismoak ezartzen digun lana bete beharko dugu.

Marxen arabera, lanean ematen diren lau alienazio motak honakoak dira:

- *Ekoizpen prozesuaren* hasieratik kapitalista da zer ekoiztu zehaztuko duena. Hemen kontraesana dagoela ikus dezakegu komunismo eta kapitalismoaren artean.

- *Ekoiztu den produktuarekiko* alienazioa ematen da, langileak produktu bat ekiztuko du baina ez da produktu horren jabe. Horregatik, langileak produktua erosi beharko du kapitalistari plusbalio ordainduz.
- *Langileen arteko* alienazioa emango da. Komunismoan langileen arteko elkartasuna dago, baina kapitalismoan isolamendua dago, eta konpetentzia bultzatzen da.
- *Giza esentziarekiko* alienazioa ematen da. Kontraesan bat emango da lanaren etaa naturaren artean.

GIZARTE KAPITALISTAREN EGITURAK:

Kapitalistak kapitalaren eta ekoizpen-bideen jabeak dira, langileak aldiz, lan indarra besterik ez dute. Kapitalismoan, kapitalistek botere hori kudeatu egiten dute, bai arlo ekonomikoan eta bai kulturean, politikan... gainegituran, alegia.

Kapitalistak, Marxen arabera, botere harremanen menpe bizi dira, eta kontuan izan behar da hemen interes ezberdinak daudela. Sistema kapitalistak oinarri batzuk eta Estatua baititu. Marxistek diotenean soziologia burgesa dela kapitalismoari jarraitzen zaiola diote.

Kapitalismoa hobe ulertzeko hainbat kontzeptu:

- **Merkantzia:** lan indarraren bidez ekoizten den produktua. Bi kontzepturen arteko kontraesana emango da merkantziaren baitan: erabilpen balioa eta truke balioaren artean
 - o **Erabilpen balioa:** giza beharrezan arabera duen balioa
 - o **Truke-balioa:** saltzerakoan ezartzen dioten prezioa

Marxen ustez bi hauek batera joan beharko lirateke, baina kapitalismoan ez da hau gertatuko.

Kapitala, kapitalista eta proletalgora:

Kapitalistak produkzio bideak eta kapitala izango ditu, orduan produktu bat ekoiztuko du, eta kapitalista izango da irabazten aterako dena.

Marxek dio balizko askatasuna ez dela errealitatean ematen. Hortaz, langileak antolatu egingo dira, langileek lantegi bat utzi eta horrela presio bide bat lortuko genuke. Baina badago langileen erreserba, zeina langabezia dauden langileek osatzen duten. Beraz, fenomeno honek kapitalisten alde egingo du.

Enpresariak ezin ditu langileak kontratatu greban dauden langileak ordezkatzeko. Beraz, grebaren arauketaren bidez langileak hainbat eskubide izango ditu.

Plusbalioa sortzen da langileari ordaintzen zaionari mozkin gehitzean. Normalean plusbalioarekin kapitalista geratuko da, baina ez da beti horrela izan. Suposatzen da dagoen mozkin hori banatu egin beharko litzatekela; hortaz, langilegoak mozkinaren zati bat soldaten igoerarekin lortuko du.

Marxen arabera, kapitalistaren helburua ahalik eta mozkin gehien lortzea izango da. Beraz, kapitalistak langileari ahalik eta soldata baxuena emango dio.

Kapitalistak izango dira iraultzara garamatzatenak. Hemen sortzen baita kapitalistaren eta langilearen arteko kontraesana.

Klase sozialen banaketak diru sarrerez gain baditu beste ezaugarri batzuk ere; prestigioa esaterako. Adibidez, harakin batek Unibertsitateko irakasle batek baina gehiago ordaindu arren, prestigio eta beste hainbat arrazoiengatik ez du irakasleak baina klase sozial altuago izango.

Beste adibide bat, 'Froilan Maritxalar de Borbón' izena izanez gero pertsona honek bermatuta dauka bere exekutibo lanpostua. Honen arrazoia kapital metatua da, hau da, bere familiarik datorkion kapital horrek emango dio prestigioa.

Gizarte kapitalista egituratzen dituzten hainbat elementuren inguruan hitz egiten jarraituko dugu:

Askatasuna, berdintasuna eta ideologiak:

Kontzeptu burgesak direla aipatzen du, oinarria superrestrukturan dutelako. Entelekia litzateke planteatzen dena baina errealitatean ez dena.

Teorian langilea askea da, baina errealitatean ez bere lan indarra saldu behar duelako; askea dena kapitala litzateke.

Gainegiturak hainbat estrategia ditu: kapitala leku batetik bestera eraman dezake, erreserbako ejertzitua du, teknologiaren bidez langileak bota ditzake (automatizatu), grebaren parekoa litzatekeen itxiera patronala egin... Hortaz, enpresariak gauza guzti hauek egin ditzake langilearen aurka egiteko.

Langilegoa erabat salduta dago eta enpresariak, berriz, eskumen guztiak bere esku ditu. Beraz, honek greba eskubidea, soldata minimoa eta arauketa (sindikatuaren negoziazioak) ekarriko ditu. Enpresaria sindikatuarekin hainbat puntu negoziatzera behartuta dago, eta negoziatio hauek enpresa komitearekin egingo dituzte.

Gainera, aipatu sistema kapitalistan ez dela berdintasunik ematen.

Ideologiarekin lotuta erlijioa da dugun beste puntu bat. Marxen arabera, erlijioa herriaren opioa da alienatu egiten gaituelako. Alienatzailea da borroka ez egitera garamatzalako. Aitzitik, Marxismoaren eta erlijioaren artean badira harremanak, askatasunaren teologia (Jesus pobrea izan zen, eta pobreen alde borrokatu beharra dago. Askatasunaren teologian hainbat euskal apaizek hartu zuten parte Ejakuriak eta Jon Sobrinok esaterako) esaterako. Erlijio eta Marxismoaren artean erabateko zatiketa dagoela ematen duen arren, egon izan dira bi hauen arteko loturak.

Gizarte komunista gizarte kapitalistaren aurrean dagoena da, eta gizarte komunistara sozialismoa ezarriz iritsiko ginateke. Hortaz, gizarte komunista beste paradisu mota bat da.

Amaitzeko, **marxismoari egin zaizkion hainbat kritikez** arituko gara:

- Lurralde sozialisten porrota: Marxismoak praktikara eraman denean porrot egin du, eta hainbat sistema sozialista komunismotik aldendu dira.
- Gerturapen feministarik ez izatea (edo oso mugatua izatea) da marxismoari leporatu zaien puntutako bat, hau da, lan erreproduktiboari garrantziarik ez ematea. (Aipatu beharra dago Marxek egindakoak bere garaian egin zituela)
- Subjektu iraultzailea edo emantzipatzailea: Marxen ustez, langilegoa litzateke subjektu askatzailea. Iraultza sozialistak ezarri diren leku gehienetan oinarri ekonomikoa nekazaritza izan da, ez da langilegoa izan. Gainera, iraultzaren liderrak ez dira langileak izan intelektual burgesak baizik.

BIGARREN ZATIA: SOZIOLOGIAREN KLASIKOAK: DURKHEIM, WEBER ETA SIMMEL

3.gaia:

EMILE DURKHEIM: SOZIOLOGIAREN INSTITUZIONALIZAZIOA

SARRERA:

Egile klasikoa izan zen Emile Durkheim (1858-1917), soziologian garrantzia handikoa, Epinalen (Lorena, Frantzia) jaioa. Familia judutarrekoa zen, errabino izateko hezia, nahiz gaztaroan agnostizismora bildu zen; honakoa aintzat hartzekoa da maiz eliteetan kokatzen direlako (honek kokatzen du antisemitismoa eta nazismoa).

Durkheimek bi kezka nagusi izango ditu:

1. Soziologia zientzia egonkortzea: bera izango da soziologiako lehen katedraduna; eta horretarako, soziologia unibertsitatean sartzen saiatuko da.
2. III. Errepublikaren ezarpena ere izan zuen kezkatzat: Frantziar Iraultza eta errestituzioak emango dira, eta bere garaian III. Errepublika (1870-1940) ezarriko da, eta hau soziologian sartzen saiatuko da. Horrela, ahalegindu zen Soziologiaren bidez (oro har, gizarte-pentsamendu zientifikoaren bidez) III. Errepublika legitimatu eta indartzen; harekiko leial azaldu baitzen uneoro Durkheim

FRANTZIAR III. ERREPUBLIKA: moral laikoa eta baikortasun zientifikoa

Errepublikaren oinarriak moral laikoa eta baikortasun zientifikoa izango dira.

Kasu honetan kezka nagusia III. Errepublika legitimatzea da, eta frantziar guztien Estatua izan dadin nahiko du. Errepublikaren aurka indar monarkikoak, indar erlijiosoak, langile mugimendua... leudeke. Beraz, Durkheimen ikusten du III. Errepublikaren aurkako mugimenduak daudela, eta berak nahi duena aurkakoa da, adostasuna.

Berak uste du batasun morala eraiki behar dela, hau da, balore batzuk komunean izan behar dira. Oso Estatu zentralista izan da Frantzia. Frantziako eskoletan ez da erlijioa irakasten. Frantziar, adibidez, jende guztia joango da eskolara eskola publikoak daudelako, baina honen atzean legoke herritarren kontrola. Hortaz, eskolak hainbat balore barneratzeko balio du.

Zientziaren nagusitasunak positibismoarekin bat egiten du, kasu honetan soziologia zientzia bat litzateke. Durkheimen asmoa soziologia gizartea batzeko trena izatea da. Erlijioak markatu du eta markatzen du hainbat lekutan oraindik ere autoritatea.

Berak defendatzen du soziologia errealitatea aztertzeko zientzia dela, eta soziologia eta metafisika edo filosofia ezin direla bateratu.

DURKHEIM ETA MORALA, aztergai soziologikoa

Honekin hasi aurretik, oroitu beharra dugu batasuna edo adostasuna beharrezko ikusten duela Durkheimen. Izan ere, Saint Simonek bezalaxe, gizartea uste moralen komunitate gisa definitu zuen.

Morala hala definitu behar da Durkheim ulertzeko: ongia eta bizitza ona zertan datzan azaltzen duen ideia-sistema da morala. Honekin, gizarte guztiek dute arau moral multzo jakin bat; hots, gizarte guztietan daude begirunea eragiten duten ideia edo errealtate batzuk (askatasuna, kasu). Laburbilduz, moralarekin gizarte batean diren arau komunei egiten diegu erreferentzia, taldeak bizi ahal izatea ahalbidetzen dutenei.

Horrela, bada, irizpide moraletan gutxieneko adostasuna ezinbestekotzat jotzen da, taldeak iraun dezan beharrezkoa, alegia.

Zentzu honetan, Durkheimek dio ezinezkoa dela inolako aldaketa sozialik gauzatzea dagokion eraldaketa moralik gabe. Horrekin, morala aldaketa sozialei lotuta ulertu zuen Durkheimek: moralaren arabera gizarte bat ala bestea izango dugu.

Durkheimek, horrela, garaian Frantzia indarrean zeuden moralari buruzko bi korronte edo teoria etiko nagusiak kritikatu zituen (XVII-XVIII mendeetan): utilitarismoa eta idealismoa.

Etika moralaren gogoeta zientifiko edo teorikoa dela esaten da.

XVIII. eta XIX. mendeetan, Frantzia nagusi ziren moralaren bi interpretazioak edo korronteak (utilitarismoa eta idealismoa) kritikatu ditu Durkheimek.

- **Utilitarismoa:** etekin pertsonala bilatzen du. Beraz, korronte utilitaristak gizaki guztiok ahal den eta gure zoriontasun altuena lortzea nahi dugula defendatzen du. Ondorioz, kritikatu egingo du ez delako moral komunik sortzen eta baita oso erlatibista delako ere. Honek ez baitu gizartearen batasuna eta egonkortasuna inondik inora zehazten.
- **Idealismoa:** erlatibismoa (arau guztiak ez dira zilegi uneoro) vs unibertsalismoa (arau guztiak uneoro zilegi). Beraz, hemendik letorke idealismoa. Kanten idealismoan oinarrituz gero honakoa dio, oinarria gizakiaren askatasuna da, eta hemendik abiatuta badaude unibertsalak diren arau batzuk. Hortaz, badago moral bat unibertsala dena askatasun horiek unibertsalak direlako. Gaur egunera ekarrita, giza eskubideak Kantek diskurtsotik hartuak leudeke.

Laburbilduz esan genezake Durkheimek bi ikuspuntu filosofiko horiek gogor kritikatu zituela, morala esparru individual hutsera mugatu nahi izan zutelako. Izan ere, haren esanetan, morala soziala da, eta ez dago moral individualik. Hala dio: *gizarteak bere buruari ezartzen dizkion betebeharrak, izatez, gizartearekiko betebeharrak dira.*

Horrela, etengabe azpimarratu zuen moralaren izaera soziala. Era berean, Durkheimen esanetan, **moralak hiru osagai** ditu:

- *Diziplina espiritua:*

Moraltasuna izateko arauak onartzeko gaitasuna izan behar dugu, hau da, ezartzen diren arauetara moldatu nahi gara. Egunero onartzen ditugu arauak, egunero gehienok arau gehienak errespetatzen ditugu taldean egotea gustatzen zaigulako.

- *Helburu kolektiboak:*

Lehen aipatutako utilitarismoa eta idealismoa.

- *Autonomia:*

Durkheimen autonomia ez du autonomia indibidual gisara ulertzen, hau ulertzera iritsi nahi du. Beraz, gehiago litzateke autonomia intelektualak. Arau hau ikusten dut ez dela araurik egokiena baina errespetatzen dut badituelako beste ondorio batzuk. Hortaz, ezezagutzatik ezagutzara pasako gara.

ELKARTASUN SOZIALA, LANAREN BANAKETA ETA KONTZIENTZIA KOLEKTIBOA

Teoria soziologikoaren kezketako bat talde kohesioa nola sortzen den jakitea da. Beraz, nola sortzen da talde kohesioa?

Talde horretako kideek helburu komunak, elkartasuna, talde kontzientzia, homogeneousitatea... izan behar dute; hala, talde horren biziraupena bermatuko delako. Aitzitik, elkartasun hau desagertzen bada arazoak izango baitira. Adibidez, Frantzia talde guztien artean gatazka dago, eta alderantziz elkartasuna egon beharko litzateke.

Bere ustez, talde kohesioa bermatzeko gizarte tradizional primitiboetan elkartasun mota bat dago, eta modernitatearen garaiotan beste elkartasun mota bat. Batetik, gizarte tradizionalan, elkartasun mekanikoa dago; eta bestetik, gizarte modernoetan, elkartasun organikoa.

Beraz, honako bereizketa egingo genuke:

- *Elkartasun mekanikoa* (g. tradizionala): planteatzen ditu era mekanikoan ordenatzen diren molekula. Hots, pertsona guztiek funtzio berak betetzen dituzte, eta bertako egoera homogeneousoa da. Adibidez, molekula unizelularrak indibidualak eta berdinak dira. Indibiduoak bere autonomia garatzeko aukera oso mugatua da.
- *Elkartasun organikoa* (g. modernoa): denok dauzkagu besteen beharrak; hortaz, gizarte sortzen da bakoitzak gizarte funtzio bat dugulako. Elkartasun hau gizarte modernoetan lanaren banaketaren bidez ematen da. Indibiduoak bere autonomia garatzeko aukera gehiago izango du elkartasun organikoan.

Nola sortzen da elkartasun hori? **Kontzientzia kolektiboaren** bidez.

Gizarte bakoitzak daukan gizarte kontzientziari kontzientzia kolektiboa deitzen dio. Beraz, gizarte tradizionalak kontzientzia kolektibo bat izango du, eta gizarte moderno bat. Kontzientzia hori gizarte batean gehienek duten kontzientzia izango da.

Lan banaketarekin indibiduo bakoitzak espezializazio gehiago garatuko du; beraz, honek kontzientzia kolektiboa gutxituko du. Eta alderantziz; gero indibidualtasunerako askatasun gutxiago, gero eta kontzientzia kolektibo handiagoa.

- Indibidualtasunerako askatasun gehiago → kontzientzia kolektibo gutxiago
- Indibidualtasunerako askatasun gutxiago → kontzientzia kolektibo gehiago

Kontzientzia kolektiboaren osagaiak/ezaugarriak:

	Gizarte tradizionala	Gizarte modernoa
Kopurua	Asko	Ez hainbeste
Intentsitatea	Handia	Txikia

Zurruntasuna	Altua	Bajua
Eduki maila (zertan oinarrituko da)	Erlijioa, Sozialismoa	Indibidualizazioa (arriskua ikusten du)

Durkheimen helburuetako bat indibidualtasuna eta berekoitasuna zatitzea litzateke. Bere ustez, indibidualtasuna modernitatearekin datorren prozesu bat da. Adibidez, Kuban tradizioetik modernitatera kezka aldatu egin dira. Hortaz, honek arrisku bat izango luke; berekoitasuna. Bilakaera historikoarekin batera indibidualtasunerako tresnak gero eta gehiago dira.

Moralitate bat behar dugu baina indibidualtasun honen baitan.

Gizarte tradizionala zuzenbide errepresiboa izango da nagusi. Zuzenbide errepresibo honen helburua nagusi den moralaren defendatzea izango da. Beraz, zuzenbide honek kide guztiak ordezkatzeko dituen, hau da, guztiok defendatuko gaitu. Askotan balio sistemaren kontrako urraketa gisa ulertzen da.

Zuzenbide leheneratzailea, lehen zegoen egoerara bueltatzen, kontua ez da gizarte guztia irainduta sentitzen dela, baizik eta pertsona jakin batzuk. Onartu dezakegu zigorra, baina zigorra ez da garrantzitsua; gerturapen onak ez du zigorra lehenesten. Adibidez, ETAko presoek kasu garrantzitsua ez da zigorra, errestaurazioa baizik. Gaur egun, justizioa zigor eta bergizarteratze gisa plantetzen da.

Kontzientzia sozialari lotuta indibidualitatearekiko sortzen den kultura dago.

Durkheimek ikusten duen kezka da gizarte modernoetan gero eta indibidualistagoak garela, zerbait behar dugulako gutxiengoaren kohesioa mantentzeko.

Beraz, saiatu egiten da indibidualtasuna eta berekoitasuna bereizten, nahiz eta, normalean batera joan. Nolabait kontzientzia soziala bilatu behar da berekoitasuna ez hedatzeko, baina bai indibidualtasuna. Gero eta askeagoak gara, gizarte tradizional horretatik gero aldenduago gaudelako. Beraz, berak dio lortu behar dugula kontzientzia soziala lortzea.

Funtzionalista den aldetik berak gizartearen iraupena bermatu nahi du, eta gero eta indibidualistagoak bagara askatasun gehiago izango ditugu. (Besteetan gutxiago pentsatzen dugu, nahi duguna gure garapen propioa da).

Berak ikusten du badea elementu bat kontrolatu beharra dena, baina kontrolatzea oso zaila dena.

Durkheimek gatazka eza eta kohesioa bilatzen ditu, eta bere kezka nagusietako bat III. Errepublikaren bilatzea da. Hots, bere helburuetako bat III. Errepublikaren sendotzea da, eta hortik abiatu teoria soziologiko bat eraikitzen saiatuko da.

Durkheimen teoriari egindako kritikak:

Zer planteatu Durkheimek lanaren banaketaren arazoa konpontzeko?

Lanaren banaketan gatazka da, eta arazoa ez da banaketa hori arazoa moralitatea da. Lan munduko gatazka hori ekiditeko moralitate bateratu bat planteatu du. Hots, lan merkatuan gatazka beharrean, kapitalista eta langileen arteko elkarlana sustatuko da. (Gainera, ideia hau sozialismoari aurre egiteko

ere planteatua izan da). Horretarako, langile elkarteak sortzea proposatuko du, gatazkak zokoratu eta elkarkidetzan oinarritutako lan banaketa sustatuz.

Bada hitzarmen kolektibo bat, zeina, enpresa bat sortzerako garaian bete beharra den. Lan erreforma aldatzean, aurreko lan hitzarmenak zioen konbenio bat kadukatutakoan hurrengo sartuko zela indarrean. Beraz, honek ahalbidetu duena da Espainiako hainbat enpresa bertara sartzea.

Hemen ikus dezakegu zein garrantzitsuak diren sindikatuak, langileen eskubideak defendatzen dituztelako. Nolabait ere, langileak batu eta negoziazio kolektiboarekin batera langileekin negoziatzea ahalbidetzen dutelako.

Elkartasuna eta kontzientzia soziala bermatzeko beste elementu bat herentziarekin amaitzea da, honek betiko iraupena bermatzen duelako. Liberal askok dio gorantz egiteko irizpidea meritukrazia dela, hau da, zuk zure lorpenen arabera egongo zara gora edo beheran, herentzia meritukraziaren aurka legoke.

Adibidez, zure gurasoak aberatsak badira ez daukazu zertan unibertsitatera etorri, gorantz egiteko aukerak dituzulako.

METODO SOZIOLOGIKOA: EGITATE SOZIALAK

Metodo soziologikoari dagokionez Soziologiaren aztergaiaren izaera eta ikertze-eremua zehaztea izango du Durkheimek kezka nagusizat. Izan ere, soziologia zientzia gisa izendatzeko, beharrezkoa zen fenomeno sozialak psikologiko eta biologiko direnetatik bereiztea. Horrela, **egitate sozialen** definizio zehatza egitea izango du helburu.

Los hechos sociales son formas de obrar, pensar y sentir presentes en un grupo social; exteriores al individuo y que están dotados de un poder de coacción.

Bi irizpide aipatzen ditu egitate sozialak bereizteko:

- Egitate sozialak gizakiaz edo norbanakoaz kanpokoak dira.
 - o Gizaki oro dagoeneko abian dagoen eta egitura jakin batzuk dauzkan gizarte batean jaiotzen da, eta gizarte hark baldintzatzen du bere nortasuna.
 - o Gizaki oro gizartea osatzen duten harreman multzoaren baitan elementu bat besterik ez da. Harreman horiek ez dira gizabanakoak sortuak, baizik eta gizaki askoren arteko harremanek osatutakoak.
- Egitate sozialek hertsadura eragiten dute. Hainbat jarduera betebeharrak moral sare baten baitan kokatzen da. Horiei muzin eginez gero, egitate sozialen indar hertsatzailea antzemango da: beldurra bera ere bada moralei eusteko zio nagusienetakoa. Honakoa autoritate moralaren ondorio dela esan genezake.

Labur esanda, Durkheimek dio egitate sozialak *gauza balira bezala aztertu behar direla*; hots, egitate sozialen azterketa zientifikoa egingarria dela. Hau burutzeko, objektibotasunaren printzipioaren alde kokatzen da (ikertzailearen motibazioak alde batera uzten ahaleginduz).

KORRONTE SOZIALAK: SUIZIDIOA

Egitate sozial ezberdinek indar ezberdina izango dute. Adibidez, ezkontza egitate sozial bezala aldatu egin da, egun duen indarra ez da garai batean zuen indarra. Egundun ezkontza aurretik bikotekidearekin biziko zara, baina garai batean ez zen hala.

Hemen ikus dezakegu egitate sozialak indarra galdu duela. Beraz, egitate sozialek ez zaituzte ezkontzera behartzen, baina, eskolara joatea bai.

Zeren arabera izango du egitate sozial batek indar gehiago edo gutxiago? **Korronte sozialaren** arabera.

Korronte sozialak gizarte batean momentu batean nagusi diren sentimendu multzoei deitzen de, hau da, komunitate batek gizarte batean konpartitzen dituen sentimenduak. Adibidez, krisi garaian desmoralizazio kolektibo bat izan da, eta Durkheinek honi deitzen dio korronte soziala.

Durkheimen planteatzen du korronte sozialen artean gizarte modernoetan **suizidioa** izango dugula.

Bere kezka nagusia ez da suizidio horren arrazoia bilatzea izango, suizidio tasa aztertzea baizik. Berarentzat suizidioa gauza patologikoa da, eta historian zehar eman den gauza bat da.

- Zergatik gizarte tradizionaletan suizidio gutxiago gizarte modernoetan baino? (*Suizidioak → gizarte tradizionala < gizarte modernoa*)

Erljioak gizartea kohesionatzen zuen, hau da, integrazioa bermatuko du. Gero eta askatasun gehiago kohesio sozial gutxiago izango dugu. Adibidez, AEBn esklabu batzuk ez zuten askeak izan nahi ez zekitelako zer gertatuko zitzaien.

Gizarte tradizionaletan ez dago askatasunik baina erabateko kohesioa dago. Hortaz, modernizazioaren elementu garrantzitsuena askeago gairela da.

Egile batzuk suizidioan imitazioa ematen zela zioten, hau da, gertaerak bat gertatu hala bestearen atzetik datoz. Imitazio hau genero indarkerian eman dela aipatzen dute batzuek.

Suizidio tasak zeren arabera egongo dira? Kontzientziaren arabera. Alegia, gizarte ezberdinen arabera suizidio tasa ezberdinak emango dira; ez dira faktore biologikoak izango.

Erljioari dagokionez, lurralde protestante eta katolikoaren arteko bereizketa bat egiten du; lurralde protestanteetan suizidio gehiago daudela frogatzen saiatuko da. Hots, protestantismoak indibiduoaren eta jainkoaren arteko harremana askoz ere askeagoa eta zuzenagoa da.

Suizidiorako joera gutxiago dute familian bizi direnek, bakarrik baldin bazaude joera handiagoa izango duzu suizidiora jotzeko.

Gizonezkoen suizidio tasa altuagoa da emakumezkoena baino. Beraz, honek erabateko ikuskera matxista du, gizonek askatasun gehiago dituztela ikusten delako. (Gizonezkoen tasa: %13,02 eta emakumezkoena %3,2).

Suizidioaren barnean hiru mota bereizten dira, eta honakoak dira bereizten diren hiru suizidio motak:

- Suizidio egoista: talde integrazioerik eta presio sozialik ez dagoenean. Hau litzateke gehien aurkitu dugun suizidio mota.
- Suizidio altruista: guztiz kontrakoa. Gehiegizko integrazioa dagoenean.
- Suizidio anomikoa: moral falta edota arau moralen falta litzateke. Gehienbat harreman ekonomikoetan ematen da.

4.gaia:

MAX WEBER: ULERMENAREN SOZIOLOGIA

Alemanian jaio zen, Prusian. Protestantismoan bere ikerketa eremuan garrantzia handia izango du, apaiz protestantea izan zelako. Weberrek ere politikan garrantzia handia izan zuen. Hasiera batean ikuspegi inperialista izango du, eta bere azken garaietan demokraziaren alde agertuko da (aipatu soziologo askok ez dutela demokrazia begi honekin ikusiko). Ez du sutuki defendatuko baina bai aipatuko du dagoen eredu onena dela.

Alemanian garai hauetan erlijioak, protestantismoak (Bavierak, katolikoak, salbu), indarra dauka, eta erlijioaren indar horrek Frantziarekin alderatuz arrazoia eta pasioaren arteko harremana ezberdina izan dadin eragingo du. Arrazoia izango da pasioa izango duena baita zientzia aztertzerako garaian ere, gerturapena ezberdina da. Hots, Weber soziologian elementu subjektiboei izugarriko garrantzia emango die.

Weberrentzat garrantzitsuena edozein gertakari sozial ematen denean gertakari soziala horren atzean zein helburu dagoen, hau da, egiten duen horrek zein helburu daukan.

Bestetik, Alemanian momentu honetan nagusi izango den zientzia historia izango da, eta honek ere Weberren jarduera soziologikoan eragina izango du. Weberrek soziologia askotan historia aztertzeko erabiliko du. Aipatu beharra dago Weberrek bere tesia Erdi Aroko historiaren inguruan egin zuela. Weberrek dio soziologia historiaren zerbitzura egongo dela, nagusi den zientzia historia delako.

Historia ulertzeko bi korrante bereiz ditzakegu, eta Weber bien artean kokatuko da.

- *Positibistak*: historia lege orokorren arabera azaldu daiteke. Hots, lege orokor batzuk daude eta historia lege orokor batzuek bidez azal daiteke. Adibidez, Marxismoa hemen kokatuko genuke.
- *Subjetibistak*: historia gertakari isolatu eta soilen batuketa hutsa da.

Teorian orokortasunen bidez errealitate hori hobeto uler dezakegu. Errealitate enpirikoa bereiztu egiten da, baina teoriaren bidez errealitatea hobe uler dezakegu. Horretarako, tipo idealak aztertuko ditugu, hau da, errealitate enpirikoa aztertzeko kategoriak.

Garrantzitsua den beste elementu bat honakoa litzateke; historia ulertzeko ezin da bakarrik kausa bat erabili, kausa anitz daude ekintza sozialak ulertu ahal izateko. Honen kontra egingo luke Marxek, zeinak, historia ekonomiaren bidez soilik ulertzen duen. Baina Weberrek dio errealitatea ez dela harreman ekonomikoen bidez soilik ulertzen.


Objektiboki jauntxo baten menpe zegoen nekazari batek nahi zuen lan horretan aritu, baina ez zen soilik erabaki ekonomikoa. Langile horiek askatasun bat zuten.

Weberrek dio kapitalismoa sortzeko protestantismoak garrantzi handia izan duela, baina ez dago kausa bakarra kausa ezberdinak daude. Gainera, berak dio protestantismoak ez zuela kapitalismoa soilik sortu nahi; honek, ahalbidetu du honek aurrera egitea. Weberrek ekonomiari garrantzia ematen dio, baina beste faktore batzuri ere bai

GOGOETA METODOLOGIKOAK: VERTEHEN ETA TIPO IDEALAK

Weberrek bi kontzeptu erabiliko ditu: 'verstehen' (ulermena) eta tipo idealak.

- **Ulermena:** Weberrek Gizarte Zientziak eta Natur Zientziak ezberdinak direla, eta ikerketa objektua dela bereizten dituen, hau da, Gizarte Zientzietan nagusiki subjektua aztertzen dugu. Beharrezkoa da egiten den gertakari horri zein gerturapen egiten diodan jakitea. Beraz, abiapuntua izango da ulermena, eta hurrena testuinguruaren azterketa. Durkheimi kontra egiten dio aipatutako azken puntu honetan.
- **Weberren tipo idealak** (errealitate soziala eta gertakari idealak aztertzeko tresnak/kategoria analitikoak): Tipo idealak kategoria analitikoak daude, eta edozein ikerketa objekturi tipo ideal bat ezarri diezaiokegu; beraz, guk nahi bezain beste tipo ideal eraiki ditzakegu errealitatea aztertzuz.



Hauen eraikuntzan hiru urrats daude:

- Errealitatea aztertu
- Tipo idealak eraiki
- Horiek baliatuz mota ezberdinak aztertu

Adibidez, nik euskarako adarrean dauden soziologiako ikasleak aztertu nahi baditut nahi dudan tipo ideal horren artean nahi ditudan ezaugarriak aztertuko ditut. Beraz, tipo ideala litzateke; soziologiako ikasleak euskarako adarrean.

EGITATE BAIEZTAPENAK ETA BALIO BAIEZTAPENAK:

EGITATE BAIEZTAPENAK errealitatea dira, eta BALIO BAIEZTAPENAK, berriz, zer den. Weberrentzat soziologian egitate baieztapenentzako lekua bakarrik dago.

Irakaskuntzari dagokionez, berak soziologoaren profesioaz aztertu zuen, eta berak dio irakasleak klasean balio baieztapenak ekidin behar dituela. Nolabait ere, bere iritzi pertsonalak ez dituela klasean azaldu behar, balio moralak azter ditzake baina ez du bere ikuspunturik emango. Weberrek planteatzen du klasean ez dela politika egiten, soziologia baizik.

Ikerketari dagokionez, ikergaia aukeratzean balio baieztapenak egongo dira, baina behin gai hori aukeratzean balio baieztapenak desagertu egingo dira. Berak ulertzen gaiaren arabera hainbat puntu sartzen direla balio baieztapenetan. Txostena idazten ari zarenean ideologia alde batera utzi beharra duzu.

Weberrek dio zientzia erlijio bihurtu dela. Beraz, zientzia erlijioa dela esaten badugu bizitza eta heriotza

Weberrek dio zientziak ezin dizkigula balioak eman, balioen inguruko azterketa egin dezake. Berak ikusten duen arriskua zientzia erlijio berri gisan ikustea, hau da, zientziak egia esango digu. Berak dio modernitatean desmagifikazio prozesu bat emango dela. Hots, balioak zientziaren menpe geratuko

direla. Adibidez, zertarako bizi garen galdera zientziaren esku uzten badugu hau desmagifikatu egingo da.

Zientziak balio terminoetan ezin du esan bata bestea baino hobea dela. Baieztapen honetan Marxek dioenari jarraitzen dio determinismoaren ikuspuntuan. Historia lantzerako garaian batzuk zikloari buruz hitz egiten dute, eta berak dio etorkizunean ezin dela zikloen inguruan hitz egin.

Beraz, Weber sinistuna da eta protestantismoa landuko du. Hortaz, zientziak balioak alde batera utzi behar ditu. Adibidez, irakasle batzuk balioak azalduko dituzte, denek ez dituzte balio berak eskainiko baina errealitate hau aztertu ahal izateko tipo idealak baliatuko ditugu.

EGINTZA SOZIALA, Weberren ardatzetako bat gizartea aztertzen duenean.

Durkheimen ez bezala Weberrek norbanakoari ematen dio garrantzia.

EGINTZA SOZIALA norbanakoek testuinguru sozial batean egiten duguna da, eta hau derrigorrezkoa da. Honek, subjektibitatea izango du. Egintza sozial baten atzean helburu bat dago, subjektibitatea. '*Nik zertarako egiten dut?*' izango da soziologiak aztertuko duena, hau da, egintza sozial hauen kausalitateak aztertuko ditu soziologiak.

Durkheimen denbora guztian egitate sozial horrek gizartean zein paper duen bilatzen du, eta Weberrek, berriz, norbanakoak gizartean duen ikuspuntu hori aztertzen du.

Subjektibitatea, norbanakoak zer egiten duen, egintza sozialak norbanako batekin ematen dira. Helburuekin eta esanahi batekin egiten dira gauzak, talde multzo bat ilara batean badago ez dago egintza sozialik. Kontzienteki helburu batekin egiten den ekintza da.

Ekintza sozialetan gatazkak daude, eta askotan horretan oinarritzen dira.

Weberrentzat ekintza sozialik garrantzitsuenak arrazionalak dira. Baina instintoaren arabera ekintzak ez dira ekintza sozialak. Ekintza sozialen tipo idealak dira, ez dira errealitatea izango. Tipo idealek konparatzeko balio dute, ez dute errealitatea adieraziko.

Egintza sozialaren baitan **4 mota** bereiz ditzakegu:

- ***Helburuei atxikitako egintza arrazionala:***

Gizakiak arrazionalki baloratzen ditu jokabide baten ondorio posibleak, bitartekoen eta helburuen arteko harremanen arabera. Oro har, helburu zehatz bat lortzeko bitarteko bat baino gehiago izaten da aukeratzeko; hala, gizakiak bitarteko bakoitzaren eraginkortasun erlatiboa neurtzen du.

Eremu ekonomiko, zientifiko edo politikoan gauzatzen diren aktibitate asko horrelaxe sailkatu beharko litzateke.

- ***Balioei atxikitako egintza arrazionala:***

Egintza mota honek ideal bati begira jokatzeko dakar, gainerako aspektu guztiak baztertzen direlarik. Dena den, egintza arrazionalaren baitan kokatzen da, helburu koherente batzuetara bideratuta dagoelako.

Weberrek honako adibidea jartzen du: kristaua zuzen jokatzeko arduratzen da, eta ondorioak jainkoaren esku uzten ditu. Kristauren kasuan, arimaren salbazioa ziurtatzea litzateke helburu koherente hori.

Weberrek hainbat klase bereizten ditu:

- Langileak
- Burgesia txikia
- Administrazio publikoko langileak , funtzionarioak eta intelektualak
- Enpresaburuak eta jabe handia

- **Estamentua:**

Estamentu-egoera bera konpartitzen duen gizaki multzoaz osaturik dago. Egoera hau, ordea, ez da objektiboa: hots, "beste"ek egindako ebaluazioek baldintzatuta dago. Izan ere, estamentutik kanpokoek nolabaiteko prestigioa (ohore soziala) atxiki ohi diote estamentuari.

Estamentuak, gizarte-klasearekin alderatuz gero, komunitate sentimendu indartsuagoa dakar. Izan ere, gizakiak kontziente dira estamentu edo estatus talde bateko kide direla, eta sentimendu horrek eragin zuzena du beren talde-jardunean. Horrekin, estamentu bateko kideek (aristokratek adibidez) indar biziz adierazten dute bizitza-estilo jakin bat, Gizarte-klasea Alderdia Estamentua gainerakoengandik bereizi guran; eta maiz eragotzi egiten dute taldetik kanpokoekin harreman sendorik izatea.

Weberren aburuz, estamentuek berebiziko garrantzia izan dute garapen historikoaren zenbait alditan; eta honakoa ez da ondasun-jabetza eta aberastasunarekin hertsiki lotuta joan. Nahiz, egia den, gerora jabetza ekonomikoa bilakatu dela estamentu-kidetasuna ezartzeko irizpide nagusi. (Horrekin estamentuek garrantzia galtzen dute, gizartea merkatuaren legeen pean geratzen baita).

- **Alderdia:**

Honakoa da boterearekin harremanik zuzenena duen elkartzeko mota, alderdiak beti ari baitira boterea eskuratzeko borrokan.

Era berean, alderdia da komunitate-sentimendu indartsuena erakusten duen elkartzeko mota: elkartzeko mota antolatua baita

AGINTE EGITURA:

Weberrek hiru aginte mota bereizten ditu: legal-arrazionala, tradizionala eta karismoatikoa.

- **AGINTE LEGAL-ARRAZIONALA:**

Aginte bat arrazionala izateko bertan ematen diren arauak inbertsonalak izan beharko dira, hau da, irakasle batek ezin du ebaluazio irizpidetan esan neska bazara suspendituta egongo zarela, irakasleak berdina era berdinean tratatu beharko ditu. Arauak inbertsonalak izateko oinarritzko elementua burokrazia litzateke. Hots, arau horiek era egokian gauzatzeko sortzen den egitura edo antolaketa. Beraz, antolaketa hau behar beharrezkoa da, eta Weberrentzat burokrazia da antolaketarik eraginkorrena. Burokraziak bermatzen du objetibotasuna eta antolaketa bat egotea, hau da, nik kasu guztien aurrean arau batzuk ditut. Gainera, Weberrek ikusten zuen arazoak ekar zitzakeela, baina burokrazia aginte legala bermatzeko behar beharrezkoa da.

Burokraziak aurrera egin dezan, hau da, eraginkorra izan dadin hierarkia, arauak, antolaketa minimoa, ebaluazioa... behar lituzke. Burokraziak langileak beharko ditu, eta langile hauek ikuspegi arrazional hau jarraituz egingo dira, eta langile hauek merituen bidez aukeratuko dira, egun, oposaketan bidez

egiten dira langile publikoen hautaketak. Oposaketen helburua denok berdintasun egoeran egotea da; denek azterketa berdina egingo dute, eta ateratzen den notaren arabera erabakiko da nork egin aurrera edo ez. Batzuetan burokraziak ez du ez hanka ez buru. Burokrazia bitarteko ba da eta ez helburu, eta burokrazia denek helburu gisa erabiliko balute munduak ez luke aurrera egingo.

Zein ezberdintasun ditu langile publikoak besteekiko? Funtzionarioaren fisura aginte legal arrazional hau eta burokrazia bermatzeko sortuko da. Funtzionarioen ezaugarriak honakoak dira: ezin dira kanporatu, behin betiko soldata dute... Bizitza osorako lanpostua eskaintzearen helburua zure lanpostua bermatuta izatea da eta politikatik at egotea.

Aginte arrazionalaren baitan kokatuko genuke funtzionariotza. Egun, Gorkaren ustetan, funtzionarioaren figurak administrazio publikoan ez du ez hanka ez buru. Askotan langile publikoei funtzionario deitzen diegu, baina benetan funtzionario direnak oso gutxi dira.

Weberrentzat arrisku izan daiteke burokrazia helburu bihurtzea. Hots, funtzionarioek soilik arauak errespetatzea, helburuei zuzenduriko ekintza arrazionalak aurrera eramatea. Beraz, arriskua araua helburu bihurtzea litzateke, eta arauak helburu batzuk lortzeko zehazten dira, ez badute balio aldatu egin beharko dira. Araua eraginkorra izan ezean aldatu egin beharko dira. Gutxieneko antolaketa behar beharrezkoak dira.

Aginte legal arrazionalak zergatik obeditzen dugun aipatuko digu, nahiz eta batzuetan onartu ez arren obeditzen dugun.

- **AGINTE TRADIZIONALA:**

Tradizioaren arabera lortzen duen agintea, hau da, arauak beti horrela egin direlako horrela egingo dugu. Adibidez, aginte tradizionala litzateke monarkia. Espainian ez bezala beste hainbat lekutan erregeak agintzen du, Marokon esaterako. Askotan agintean dagoenak langileak aukeratuko ditu, eta langile horiek bere lagunak izango dira. Aginte tradizionala litzateke Espainiako monarkia XVI-XVII. mendeetan. Erregeak interesen bidez aukeratuak ziaten ziren, hemen argi eta garbi erakusten den agintea ez da legal arrazionala, eta gauza gertatzen da kazikismoan. Aginte tradizionala duen horrek erabakitzen du zein sartu boterean, eta honi nepotismoa deritzo.

- **AGINTE KARISMATIKOA:**

Lider karismatiko baten atzean administrazioan lan egiten duten horiek, tipo idealei erreparatuta, ez dira modu arrazional batean aukeratuko. Weberrek dio aginte tradizionala kontserbadorea izango dela, legal-arrazionalak aldaketa bultzatuko duela, eta aginte karismatikoak, berriz, iraultzailea. Gorkaren arabera, Trump iraultzaile bat egiturari begiratuta dena iraultzen duelako. Adibidez, administrazio publikoa eta AEBko burokrazia Trumpen kontra jarri dira. Lider karismatikoen arazoa karisma galtzea litzateke, lider karismatiko batek manipulaziora garamatza. Beraz, arriskua litzateke sistema karismatiko horretako liderra galtzea; adibidez, Chavez hil egiten da, eta bere ondorengo Madurok ez du aurrekoak bezainbesteko karisma izango. Oso zaila da aginte tipo bat bakarrik topatzea, tipo idealak daude, eta aginte ezberdinak gurutzatuko zaizkigu. Gainera, aginte hauek talka egiten dute, eta honek aginteen arteko lehia sortzea dakar.

Adibidez, ni Eusko Jaurlaritzako teknikaria banaiz bertako politikariek egiten duten horri jarraitu beharko diot. Trumpen kasuan, goi-teknikari batzuk ez dute berak dioena ondo ikusten eta boikota egingo diote.

Lider karismatikoaren tendentzia askotan legal-arrazionalera jotzea izaten da. Adibidez, Txinako kasuan, azken bi hilabeteetan ikasle elkarte marxisten kontrako errepresioa zabaldu da. Nolabait ere,

Txina estatu burokratiko bat bihurtu da, eta hauen kontrako errepresioa zabaldu da. Gainera, hainbat ikasle atxilotzeari ekin diote. Oso logikoa da burokratizatu den Estatu baten horren kontra egitea arriskutsuak izan daitezkeelako etorkizunera begira euren lanetan borroka egiterako garaian.

Egun, Europako lurraldeetan nagusi den sistema aginte legal-arrazionalarekin erabat lotuta dago. Oraindik aurrera eramaten da lider karismatiko batek bere ingurukoak diren horiek aukeratzea.

MENDEBALDEKO ARRAZIONALIZAZIO PROZESUA:

Weberrentzat garrantzitsua da arau orokorrak jarri eta guztiek arau horiei betetzea. Adibidez, unibertsitatera sartzerako garaian arau batzuk daude (nota) eta matrikulatzeko bete egiten ditugu.

Weberrek honakoak bereizten ditu ekintza arrazionala (soziologiaren eta gizartearen oinarriko elementua) eta ARRAZIONALTASUNA nolabaiteko kualitate abstraktua da, eta arrazionalizazio prozesua izango da, nola ematen den prozesu hori.

Weberrek hainbat arrazionaltasun mota bereizten ditu:

- **Praktikoa:** egiten ditugun ekintza arrazionalak norbanakoaren interes propioarako izatea, hau da, nik nire probetxurako ekintzak egitea. Gainera, portaera hedonista baten aurrean geundeko.
- **Teorikoa:** gehin bat teoria mailan gelditzen dena da, eta arrazionaltasun hau errealitatea indukzioaz, dedukzioaz, kausalitatez... aztertzea litzateke. Arrazionaltasun teorikoa filosofoek, epaileek, soziologoek... erabiliko dute.
- **Sustantiboa:** egiten ditugun ekintzak balio sistema baten arabera egongo dira. Arrazionaltasun sustantiboan gure ekintzak gidatuak dira dauzkagun balio sistema batzuen arabera. Etikari, ideologiaei, erlijioari... buruz hitz egiten ari gara. Arrazionaltasun sustantiboak bizitza metodikoak ekarriko ditu erlijioak kasu. Hots, ni apaiza banaiz nire ekintzak balio batzuen arabera egingo ditut.
- **Formala:** hau da Weberrentzat egokiena dena. Weberrek guztian legal formaltasun hori bilatzen du. Nik edozein ekintza egiterako garaian helburua zein den eta bitartekoak zein diren kontuan izango dut. Hemen arrazionaltasun praktikoarekiko bereizketa bat egiten da; hau da, ez da norbanakoaren interes propioa bilatzen, lege orokor batzuk bilatzen ditu, unibertsalak diren arauen arabera jokatzeko bilatuko da. Merkatuan, ekonomian, administrazio publiko eremuan, politikan etab. gailenduko da arrazionaltasun formala.
 - o Kalkuluen garrantzia
 - o Eraginkortasuna
 - o Ziurgabetasuna kontrolatzea
 - o Planifikazioa

Arrazionaltasun formala izango da gailenduko dena, eta honekin, politikan arrazionaltasun prozesu hori emango da. Weberrek uste du arrazionaltasun formala gailenduko dela.

Mendebaldeko lurraldeetan arrazionalizazioa nola eman da? Egiten duen azterketan historia aztertzen du irizpide soziologikoen arabera. Ekonomiaren arrazionalizazio prozesua XV. mendetik aurrera ikusten du. Adibidez, merkatu librea ezarriko da, eta aurretik zeuden hainbat puntu desegingo dira.

Arrazionalizazio prozesuari lotuta kapitalismoaren garapena ematen da. Adibidez, egun badaude logika horren kontrako hainbat dinamika, 'bancos del tiempo' kasu.

Erljioari buruz egiten duen gogoetan erlijioak arrazionalizazio prozesuaren kontra egin dezakeela dio. Aipatzen du erlijioa izan dela arrazionalizazio prozesuak bultzatu dituen. Nahiz eta printzipioz eman talka egiten dutela askotan talka egiten du. Apaizak, profetak (Naoma, Jesukristo, Buda...). Profeten artean profeta epikoak, hau da, Jainkoak eman dion legitimitatearen bidez ezarriko dira. Askotan profetari mugak jartzen zaizkio, eta apaizak elizaren ordezkari dira, eta profeten aurka jar daitezke. Apaiza burokraziarekin lotuko genuke, sekularra hiritarrekin eta profeta. Arrazionalizazio prozesuaren gunea hiria litzateke. Hiriaren fenomenoak modernitatearekin erabat lotuta dago.

WEBER ETA ERLIJIOA, LOGIKA PROTESTANTEA:

Durkheim eta Weberrek erlijioa aztertu zuten sakon, eta erlijioaren aspektu soziala aztertu zuten biek, soziologiak izan ziren heinean. Ekintza arrazionalak aztertu zituzten, bai eta erlijio ezberdinak eta hauek historian zehar izandako garapena eta ezaugarriak. Weberrentzat interesgarria erlijioak eskaintzen zituen salbaziorako bideak zein ziren aztertzea izan zen, nola lortzen duzun paradisura heltzea.

Weberrek bi bide bereizi zituen:

- **ASZETISMOA:** munduko plazerei uko egitea. Protestantismoa hemen kokatuko litzateke. Erljio musulmanak ere. Mundu honek ez dauka gehiegizko garrantziarik, onena hil ondoren datorrela planteatzen da, beraz bitartekoa den mundu honetan zintzoa izan behar zara eta plazerei uko egin bestera iristeko.
- **MISTIZISMOA:** ideiekin eta gogoetarekin dago lotuta, baita meditazioarekin ere. Budismoa hemen kokatuko genuke.

Aszetismoarekin bide ematen zaio kapitalismoaren garapenari. Ez badugu jairik, lanari ematen zaio bide/garrantzia. Mistizismoarekin lana egitea oso zaila da. Katolikotasunak historian zehar otoi eginez salbatzen zarela esaten duenez, pekatuak egin ditzakezu eta barkatua izan. Kapitalismoa Europa erdialdean eta iparraldean sortzen da protestantismoak garrantzia handia izan zuelako, beste arrazoi batzuen artean. Protestantismoaren espirituak, nahi gabe ere, kapitalismoaren garapena ekarri zuen Weberren ustetan. Protestantismoak planteatzen zuen: "lan egin salbatzeko". Honek kapitalismoarekin lotura zuzena du. Katolizismoak otoia salbazio bide gisa planteatzen duen modura, protestantismoak lana planteatzen du, aleginaren bidez (la cultura del esfuerzo), lanaren bidez eta aberastasuna sortuz salbatuko zara (ikuspegi ASZETIKOA eta guztiz kapitalista). Bizitza metodikoa = bizitza aszetikoa, aberasten zarenean ez duzu gastatuko, aberasten jarraituko duzu.

AZTERKETAN KLASEAN AIPATUTAKO ADIBIDEAK ETA ESKATUKO DIZKIGU BENETAN ULERTU DUGULA JUSTIFIKATZEKO/FROGATZEKO! GALDERA TEORIKOETAN ADIBIDEAK JARRI BEHARKO DITUGU.

Bokazioa identitatearen ezaugarri dela planteatzen du Weberrek, enplegua gure bizitzaren oinarria izan behar da. Weberrentzat eta etika protestantearentzat lanean ez dagoena alper bat da, lan egin nahi ez duena. Lan egiten ez zuten pobreei, lurralde protestanteetan, zigorra ezartze zitzaien. Katolikoetan, aldiz, limosna ematen zaio. Protestanteek esaten zuten diru-laguntzak ez zaizkiela eman behar bestela ez baitute inoiz lan egingo.

WEBER ETA POLITIKA:

Politika lana lotzen du profesio eta bokazioarekin. Sinonimotzat jotzen ditu bi terminoak, ez antonimotzat. Estatu modernoak bortizkeriaren/indarkeriaren legitimazioa eta monopolioa dauka, hau Weberrek arrazionalizazio prozesu bat bezala ulertzen du. Arazoa sortuko da indarkeriaren

monopolio hori zalantzan jartzen denean (ETAren kasua). Weberrek bokazioz dagoen politikariari ezaugarri batzuk atxikitzen dizkio (izan beharko lituzketenak):

1. Grina edo pasioa
2. Erantzukizuna
3. Distantzia

Botereak dituen arazoak aurreikusten ditu. Politikaren eztabaida ideal eta helburuen eta erantzukizunaren artean ezartzen du, bi etika bereizten ditu (egin nahiko zenukeenaren eta egin behar duzunaren arteko tentsioa planteatzen du):

- **Uste sendoaren etika.** Hemen kokatuko genuke uneoro bere idealak defendatzen ari diren politikariak edo taldeak. Hemen bakarrik murgilduta egoteak antzutasuna dakar, itxuraz oso ondo geratuko zara baina egiaz ez duzu ezer lortzen.
- **Erantzukizunaren etika.** Beti oso jarrera pragmatikoa izatea, ia idealik gabea. EAJk Madrilen denekin hitzartu du, idealak jarraituko balitu, ez luke jarrera hau hartuko.

Weberrek bi hauen arteko tentsioa mantendu behar dela defendatzen du. Kataluniako adibidea hizpide hartuta... osatzeke.

5.gaia:

GEORG SIMMEL: MODERNITATEAREN SOZIOLOGIA

Judutarra da, eta ez du inolako karrera akademikorik izango.

Zaila litzateke soziologo gisa bakarrik definitzea; berak bere burua filosofo gisa definitzen baitzuen, eta psikologiari ere emango dio garrantzia.

Ez da soziologo soilak izango, bizitzaren soziologoa ere izango da; nolabait ere, Durkheimek, Weberrek lantzen dituzten gaiak landuko ditu

Egun garrantzia duten soziologiaren gai mikroetan jarriko du bere arreta. Hots, eguneroko harremanetan baita talde eta pertsonen artekoetan ere. Gehien landu zuena bikote batean hirugarren baten sarrerak zein eragin zuen izan zen.

Harremanetan sortzen den **moda edota koketeria** ere landuko du. Beraz, Simmelek gizartea atertu zuen baina beste elementu batzuei erreparatu, eta hemen psikologia sozialak garrantzia izango du.

Hiriaren azterketa (ere) egiten du, eta hiria modernitatearen eremua dela aipatu. Hargatik, Simmeli modernitatearen soziologoa deritzo; hainbat gai berri landuko dituelako, maitasuna kasu.

Gizartean beldurrak zein eragin duen ere landuko du, bere abiapuntua morbanako delarik. Kanti aipamena eginez korronea indibidualista litzateke, eta Durkheimengandik aldentuko da. Beraz, pertsonak dira, eta pertsonak gizaritari ezaugarriak emango dizkiote.

Beste elementu bat kidetasun anitza litzateke, hau da, izan dezakegu sinismen bat, ideologia bat... baina dauzkagun aniztasun eta identitate ezberdinek gure izaera osatuko dute.

Elementu psikologikoen harreman sozialetan eragina dute; adibidez, modak azaltzen digu bereizketa bat. Elementu psikologikoen ere badute zerikusia. Modu jakin batean jazten garenean talde bateko kide izan nahi dugu, baina batasunarekin batera bereizketa ere izango dugu. Beraz, gizarteak tentsioen arabera funtzionatzen du. Hemen ere izaera dialektiko hori ageri zaigu, eta koketeo horrek interes bat izango du.

Kulturari dagokionez, kultura objetiboa eta kultura subjektiboa bereizten ditu.

- Kultura objektiboa: kulturari lotutako ondorioak, artelan bat kasu.
- Kultur subjektiboa: kultura objektiboaren ondorioa, kultura objektiboarekiko independizatu dena.

Adibidez, nik kuadro bat dut eta drepresioa nuelako marraztu dut. Beraz, niretzako kuadro horrek garrantzia bat du, baina egun ez du hori islatzen. Orain kuadro horren atzean dirua egongo da, eta produktuaren emaitzak beste bide bat jarraitu du.

HIRIA ETA DIRUA:

Hiri handiak eta espirituaren bizitza:

Beste hitz batzuk erabili arren, Durkheimek dioena planteatuko du, hau da, herria litzateke elkartasun organikoa. Adibidez, hiriak anonimotasuna emango dizu, hau da, kalean nahi duzun hori egin dezakegu. Abiadura ere sortzen du, leku guztietara bizkor joateko beharra sentituko baituzu. Simmelek dio gure bizitza propioa izateko askatasuna behar dugula

Diruaren filosofia:

Hiriaren barnean oinarrizko elementua dirua izango da. Dirua filosofia gisan ulertuko dute, eta bitarteko gisara. Beraz, objektu batek daukan balioa zuk objektu horrekiko duzun distantzia izango da. Hots, pertsona batentzat objektuak balioa izango du berau oso gertu baitauka, oso urruti badago, aldiz, ez du baliorik izango.

Hortaz, Simmelen balioen ideia ez dugu beharrianak asetzearekin lotu behar.

HIRUGARREN ZATIA: KLASIKO GIZONEZKOETATIK AT

6.gaia:

EMAKUME SOZIOLOGO KLASIKOAK

SARRERA:

Kasu honetan, emakumeek seigarren ezaugarri bat gehituko diote soziologiari, eta ikuspuntu feminista ikuspuntu soziologikoan barneratzea da, hau da, genero prespektiba txertatuko dute.

Honakoak dira errepikatuko diren ezaugarriak:

- Teoria soziologikoan teoria kontuan hartzea
- Errealitate gizartean ematen diren prozesu eta egitura guztietan gizon eta emakumeen egoera kontuan hartzea
- Gizartean ematen diren gizarte ezberdinatsunei arreta jarriko diete. Desorekak eta diskriminazioak landuko dituzte. Nolabait ere, baztertuen taldeak kontuan hartuko dituzte, eta eurentzat interesgarriak izango dira.
- Ikerketa eta lan gaiak emakumeen egoera aztertzea izango dira; bikote harremanetan, lan esparruan...
- Teoria eta praktika askotan lotu eta aztertu egingo dute, akademiatik irten egingo dira. Baina soziologiaren eta Gizarte Langintzaren mugak ez dituzten oso argi izango. Hala ere, soziologiak gure bizitzan hobekuntzak izateko balio duela aipatuko dute

EMAKUME SOZIOLOGOAK: (Emakume soziologo ezberdinen ekarpenak)

Harriet Martineau (1802-1876)

Soziologiaren fundatzaileen artean kokatu daiteke, eta gizarte era sistematiko eta zientfikoan aztertzeko gogo eta beharra azalduko du.

Soziologia eta horri lotutako ezaugarriak gizarte osora zabaltzeko behar direla eta ezin direla talde pribilegiatu baten esku egon izango du. Horretarako, bere gogoeta eta ikergaiak eleberri didaktikoen bidez zabaltzeko ditu, hala publiko askotara zabaltzea lortuko du.

Kezka nagusia gizartean ematen den gizarte-bizitza azertzea izango da: bere arauak, arazoak, ondorioak eta arazoak. Berak dio gizarte-bizitza hauek goi balore batzuen arabera eman behar direla. Hots, gizarteak arau orokor batzuk zian behar dituela: gizartearen zorientasuna lortu, norbanakoaren autonomia bultzatu eta dominazioa ekidinda.

Era berean, bi kontzeptu bereiziko ditu: arauak eta moralak

- Moralak: gizarte batek dituen goi baloreak izango dira (hauek jarraitu beharra)
- Arauak: eguneroko bizitzan errealitatea nola ematen den.

Bien arteko kontraesana dagoenean anomalia baten aurrean gaude. Anomalia lirateke esklabutza, gizon eta emakumeen arteko harremanak, diruarekiko gehiegizko zaletasuna...

Ezagutza lortzeko metodoei garrantzia emango die, eta liburu bat egingo du, non behaketaren inguruan eta bertan jarraitu behar diren urratsen inguruan hitz egingo den.

Ardatz nagusia emakumeen bizi baldintzak aztertzea izango da, besteak beste emakumeen lan baldintzak, ezkontzak indarkeria, prostituzioa, modaren tirania, emakume izatearen interseksionalitatea landuko ditu.

Charlotte Perkins Gilman (1860-1935)

Gehienbat gizonezkoek landutako gaietan zentratuko da, baina genero prespektiba batetik. Generoa eta sexua bereiziko ez dituzten arren, badakite berdinak direla. Bere ustez, gizartean dauden oinarriko bi instituzioak familia eta ekonomia dira. (Ez da egungo azterketatik asko urrunduko). Hala ere, hau ez da askotan liburuetan agertuko.

Lan merkatua aztertu, eta bertan gizonek pribilegioak dituztela ikusiko du. Egun, bezala emakumeak diskriminatuta daudela ikusiko du, eta lan munduan lanpostu xumeagotan daudela.

Gizonezkoa umetatik lan produktibora zuzenduta deago, eta emakumea lan erreproduktibora.

Marx oinarri hartuta, lan ordaindua litzateke gizaki egiten gaituena. Ondorioz, emakumeak lan merkatuan parte hartu ezean ez lirateke pertsona izango, lana baita pertsona egiten gaituena. Gainera, lan merkatuan parte hartzeak baliabide ekonomikoak eta askatasuna emango dizkizu.

Landutako beste gaietako bat amatasuna eta honek lan merkatuan duen eragina izango da. Beraz, emakumeak lan merkaturatu behar direnez etxeko lanak lan profesional bihurtzea planteatuko du; hala, emakumea lan merkaturatuko litzatekelako.

Amaitzeko, soziologo hau erabat estalita egon da, bere ekarpen hauek soilik azken urteotan izan duteko garrantzia.

Jame Addams (1860-1935)

Unibertsitateko ikasketak egiteko aukera duen arren, uko egingo die, eta ohikoa ez den arren langile auzoetan egingo du lan.

Uste du teoria eta praktika uztartu behar direla, hau da, pentsamendua eta ekintza uztartu behar direla. Horretarako, kasu azterketak egingo ditu, eta horietatik ondorioak atera. Hori dela eta, orokortasunera gutxitan joko du.

Bere ustez, gizartean ematen diren harreman guztien ardatza gizarte etika izan behar da, eta honak hainbat elementu izan behar ditu:

- Talde eta pertsona guztiek balio bera dute
- Pertsona guztiak agente aktiboak izan daitezke
- Aktiboak diren heinean osotasunaren bila dihardute, eta aukerak bilatzen dituzte osotasun horrek aurrera egin dezan
- Gizarte bateko kideen segurtasuna bakoitzarena bermatuz lortuko da.

Chicagoko Eskola

Eskola honetako kideak James Adamsen jarraitzaileak dira, eta 'fuul house' (centro civico) izeneko egoitzetan antolatuko dira. Hots, langile familientzat sortutako egoitzetan. Hauen helburua erreformaren bidez bizi baldintzen hobekuntzak lortzea litzateke.

Anna Julia Cooper (1859 – 1964) eta Ida Wells-Baunett (1862 – 1931)

Bi egile hauen helburua boterea aztertzea da, eta boterearen bidez dominazioa lortzen dugula aipatzen dute. Hemendik abiatuta emakume afroamerikarren inguruko ikerketak egingo dituzte, eta klase banaketari garrantzia emango diote.

Marianne Snitchger Weber (1870 – 1954)

Pertsona guztiek aukera izan behar dute euren helburuak aztertu ahal izateko. Hots, autodeterminatzeko aukera izan behar dute. Aipatu gizona izan edo emakumea izan aukera hauek oso ezberdinak dira.

